

MOBILIZATZEKO
JARDUERA

HEZKUNTZA, BAKEA LORTZEKO BIDEA. UTZI ZURE ARRASTOA!

Hezkuntzaren aldeko Munduko 2018ko Kanpainaren (CME) unitate didaktikoa landu ondoren, **mobilizatzeko jarduera** hau proposatzen da Hezkuntzaren aldeko Munduko 2018ko Ekintza Astean (HAMA) gauatzeko:



Deskribapena: • Jarduera prestatu da Kanpainaren barruan jaso diren proposamen didaktikoak ikasgelan edo hezkuntza ez-formaleko beste talde batzuetan landu ondoren egiteko.

- Mobilizatzeko proposamen hau HAMA zehar edo beste une batean egin daiteke, ikastetxeko jardueren arabera.
- Jardueraren bi bertsio egitea iradokitzen dugu: lehenengoa, ikastetxean gauatzeko; eta bigarrena, kalean bertan egiteko. Jarduera kalean egitearen helburua gizarteari eragitea eta herritarrak mugiaraztea da, hezkuntzarako eskubidea ezagutu eta aldarrika dezaten. Bertsio hori aurrerago zehaztuko da xehetasun gehiagorekin.

- Helburuak:**
1. Hezkuntza-komunitatean, hezkuntzarako eskubidearekiko konpromisoa eta partaidetza sustatzea.
 2. Gatazka-, larrialdi- eta desplazamendu-egoeretan, hezkuntzarako eskubidea nola dagon agerian jartzea. Halaber, hezkuntzari balioa ematea, funtsezko tresna baita gatazkak bakez konpontzeko eta bakearen kultura bultzatzeko, GIH 4ko 7. xedean adierazten den bezala.



JARDUERA PRESTATUKO DUGU

Erronka bat proposatzen dugu HAMA 2018ko mobilizaziorako: **bide sinboliko bat eraikitzea, ahalik eta oin-aztarna gehienekin osatuta**. Hartara, bide horrek eskolara joateko aukera emango die errefuxiatuei eta desplazatuei, hezkuntzak bere funtzioa bete dezan bake-faktore nahiz bidegabekerieta, pobrezia eta injustiziatik babesteko elementu moduan. Zenbat eta aztarna gehiago sortu denon artean, orduan eta gertuago izango dute pertsona horiek hezkuntzarako eta testuinguru baketsu batean bizitzeko eskubideak gauzatzeko aukera.

✓ **Oin-aztarna formako irudiak** prestatuko ditugu (eredua 39. orrialdeko eranskinean dago), eta horietako bakoitzean gogoeta edo galdera bat idatziko da, unitate didaktikoan hezkuntzarako eskubidea dela-eta alde aurretik egin den lanean sortua. Funtsean, gogoetek edo galderekin zerikusia izango dute desplazatu behar izan duten pertsonen eta errefuxiatuen egoerarekin; ikusi bezala, baliteke gatazken ondorio izatea, Sirian bezala, edo klimak nahiz ekonomiak eragindako beste larrialdi batzuen ondorio, edo jazarpen politiko zein erlijiosoaren ondorio. Halaber, hezkuntzarekin ere zerikusia izango dute, bakearen kultura sustatu eta eraikitzearen tresna den aldetik.

✓ Aztarnetako mezuak idazteko, ikasleak **irudimena aska tzera** gonbidatuko ditugu. Aztarnei zenbaki bana jarriko zaie, guztiak zenbatu ahal izateko eta erronkan egiten ditugun arrerapenak neurtzeko. Hala aztarnak nola mezuak nor berea edo taldeka presta daitezke, ikastetxearen edo kolektiboaren ezaugarrien arabera.

✓ Oin-aztarnak **ikastetxean zehar ipiniko dira, eraiki nahi dugun bidea nabarmentzeko**. Ikastetxeko bi puntu lotuko

ditu bideak, gutxienez. Esate baterako, ikasgela bat edo gehiago liburutegiarekin, jantokiarekin, ikastetxeko sarrerarekin... Irudimena askatzera animatuko ditugu; adibidez, aztarnak ez dituzte zertan lurtean soilik jarri, baizik eta hormak, sabaia eta beste elementu batzuk ere erabil ditzakete. Beharrezkoa izanez gero, ondo legoke aztarnak plastifikatzea, ez hondatzeko.

✓ Aztarnak eta hautatu den bidea prestatu ostean, **ikasleak errefuxiatuen eta desplazatu behar izan duten pertsonen oinetakoetan edo larruan jarriko dira; hau da, bide hori egingo dute**, eta aztarnaz aztarna geldituko dira ikaskideek idatzitako mezuak irakurtzeko eta horien gainean hausnartzeko, harik eta helmugara iristen diren arte.

✓ Azkenik, bidearen amaierara heldutakoan, aztarna guztietako mezuak bilduko dira, denok batera amaierako gogoeta egiteko.

Ekitaldia bukatzeko, ikasleei argazki bat aterako zaie aztarnak eskuetan dituztela, hezkuntzaren alde arrastoa uzteko egin duten ekarpena irudikatze aldera.



JARDUERA PRESTATUKO DUGU

Ikastetxean egindako planteamendu bera proposatzen dugu; alde bakarra da ez dutela sortuko bi puntu lotzen dituen bide bat, baizik eta **ibilbide bat egingo dutela ikastetxea dagoen herriko espazio publiko batean, hezkuntzaren eta bakearen alde**.

Ibilbidea abiapuntu jakin batean hasita proposatzen da (ikasle bat, unibertsitatea, liburutegia, etab.), edo bestela, ausazko toki bat izan daiteke, toki jakin batean edo erakunde publiko batean amaitzeko (plaza bat, udaletxea, hezkuntza-kontseilaritza, etab.).

✓ Parte hartzen duten ikastetxeetako ikasleek beren oin-aztarnak eramango dituzte gogoetekin; esate baterako, pankarta moduan edo makila batean itsatsita, mendi-ibilbideetarako balitz bezala. Ibilbidean zehar, partaideek HAMA 2018ko GAIA batera esango dute: Hezkuntza, bakea lortzeko bidea.

Utzi zure arrastoa!

✓ **Helmugara iritsitakoan, bertaratu direnek hezkuntza eta bakea hitzak osatuko dituzte lurtean beren aztarnekin**. Jarraian, ikastetxeetako ordezkariak, bertaratutakoan eta gonbidatutako ordezkari politikoaren aurrean, ikasleek oin-aztarnetan jasotako gogoetak, galderak, aldarrikapenak eta proposamenak irakurriko dituzte, hezkuntzak desplazatu

eta errefuxiatuen testuinguruetan duen egoeraren harira, eta horrekin lotuta, hezkuntzak bakearen kulturaren alde egiteko duen zereginaren harira.

Halaber, aztarna handi bat egitea ere proposatzen dugu, ondorio horietako batzuk idazteko. Hala, pankarta moduan erabil daitezke ibilbidean, eta ondo ikusten diren toki batean ipini amaitutakoan.



JARDUERA OSAGARRIAK

Jarduera osagarriak proposatzen dizkizuegu, zuen inguruan eta gizartean hezkuntzarako eskubidea denontzat zabaltzeko, eta desplazatu behar izan duten pertsonen egoera bereziki nabarmentzeko, haien hezkuntza bitarteko bat izan baitaiteke bakearen kulturantz aurrera egiteko:

1) Inplikatu zure auzoa/herria/hiria/inguruak:

✓ Egin zure **ibilbidea hezkuntzaren** alde HAMAn zehar, lagunekin edo senideekin.

Azarnak senideen edo lagunaren artean presta ditzakezue, eta ibilbidea aukeratu.

✓ **Proposatuz zure inguruko dendei, tabernei eta erakunde**ei hezkuntzaren alde egiteko, **eta beren arrastoa uzteko!**

Aztarna formako zigilua inprima dezakezue, gaia idatzita duena: Hezkuntza, bakea lortzeko bidea. Utzi zure arrastoa! Horretarako, laguntza eska diezaiekezue senideei eta helduak diren lagunei.

2) Erabil ditzagun ondo sare sozialak!

Birala izan dadila desplazatuei eskaintzen diezuen babesa, eta denok kalitatezko eta doako hezkuntza izateko eskubideari babesa, bakearen kultura ziurtatzeko.

Taldearen bideo edo argazki bat egin dezakezu zuen lanarekin eta aztarnekin, edo ibilbidean ere bideoak eta argazkiak atara ditzakezue, eta zuen ikastetxearen Facebook profilerara igo hashtag hauekin: **#HAMA2018** eta **#utzizurearrastoa**, edo beste bat **# ikastetxeko edo ikasgelako aztarna-kopuruekin**, eta zuen Facebooken aipatu **Campaña Mundial por la Educación España** (Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpaina, Espainia), erronkarekin bat egiteko.

Kalean mobilizatzeko ekitaldiaren proposamen xehatuago bat egingo dugu HAMA 2018 izan aurreko asteetan.

EBALUAZIOA:

Gure proposamen didaktikoa ebaluatzeko galdetegia bete nahi izanez gero, Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpainaren web-orrian aurkituko duzu: www.cme-espana.org

Eskerrik asko iruzkin eta ekarpenengatik, hobetzeko balio digute eta!

ERANSKINA



✓ HEZKUNTZA,
BAKEA
LORTZEKO BIDEA



UTZI ZURE
ARRASTOA!



© Sergi Cámara/Entreculturas


www.cme-espana.org
HEZKUNTZAREN
Aldeko Mundu-kanpainia

- ✓ Erregistratu zure partaidetza HAMA-n
- ✓ Material didaktikoen ebaluazioa bete
- ✓ Hezkuntzaren aldeko mundu kanpainia segi sare sozialetan

Sartu

www.cme-espana.org
web orrian

 https://twitter.com/CME_es

 Campaña Mundial por la Educación España

Hezkuntzaren aldeko mundu kanpainaren espainiar koalizioa, erakunde hauek osatzen dute:



Estatu mailan HAMA-n parte hartzen duten erakundeak:



Parte hartzen dute.

Fundación **Santillana**

